- *Erakunde arteko komunikazio kanpaina* bat egitea, "*Azaroaren 25a, emakumeen aurkako indarkeria desagerrazteko nazioarteko eguna*" ospatzeko.

- Etxeko tratu txarrek eta sexu erasoek eragindako hilketen aurrean *Erantzuteko erakunde arteko protokolo* bat onartzea.

- *Etxeko tratu txarren biktimentzako harrera eta etxebizitza baliabideak berrantolatzeko eta hobetzeko proposamen* bat egitea.

- Gure erkidegoan *etxeko indarkeriaren biktimentzako babes aginduari* buruzko 27/2003 Legearen aplikazioa errazteko neurriak hartzea.

## Grupo Técnico Interinstitucional

Asimismo, el *Acuerdo* prevé la creación de una Comisión Técnica —Grupo Técnico Interinstitucional— de apoyo y asistencia a las y los miembros de la Comisión de Seguimiento para el correcto desempeño de sus funciones que ha mantenido diferentes reuniones previas a las realizadas por la Comisión.

## "Memoria de 2002" y "Programa de Actuación 2003", en relación al Maltrato Doméstico y las Agresiones Sexuales

Emakunde, con la colaboración de los Departamentos del Gobierno Vasco, Diputaciones Forales y los Ayuntamientos de las tres capitales, ha elaborado una *Memoria* en la que se recogen las actuaciones llevadas a cabo por las citadas Instituciones durante el 2002 para prevenir y eliminar el *Maltrato Doméstico y las Agresiones Sexuales.* Asimismo, y tal y como se hizo el año pasado, ha elaborado en colaboración con las mismas instituciones, un *"Programa de Actuación para el 2003 en relación al Maltrato Doméstico y Agresiones Sexuales"*. Este documento tiene por objeto recopilar las actuaciones a llevar a cabo durante el 2003 por las mencionadas instituciones en ejecución y desarrollo de lo previsto en el *III P.A.P.M.E.-E.G.P.P.* Siguiendo las previsiones del *Plan* en esta materia, el documento está dividido en 6 ámbitos de intervención:

— Fortalecimiento de la aplicación de los instrumentos jurídicos pertinentes en materia de derechos humanos, con el objeto de combatir y eliminar las distintas formas de violencia contra las mujeres.

— Potenciación de la investigación sobre el maltrato doméstico y las agresiones sexuales.

— Sensibilización y prevención.

— Formación a profesionales y colectivos que intervienen en situaciones de maltrato doméstico y agresiones sexuales.

— Mejora de la atención a las víctimas de la violencia contra las mujeres.

— Adecuación de los servicios de atención y recursos de acogida a mujeres y menores víctimas de la violencia doméstica y agresiones sexuales.

La *Memoria* y el *Programa* de actuación son instrumentos al servicio de toda persona, institución o colectivo que quiera disponer de una visión, global y de conjunto, de las actuaciones que se han llevado a cabo y de las que se prevén desarrollar por parte de los poderes públicos vascos con relación al fenómeno del maltrato doméstico y de las agresiones sexuales.

Erakunde arteko talde teknikoa

Orobat, *akordioan* batzorde tekniko bat sortzea aurreikusten da —Erakunde arteko talde teknikoa—, segimendu batzordeko kideei beren eginkizunak zuzen betetzen laguntzeko; talde horrek zenbait bilera egin ditu, batzordeak egindako bileren aurretik.

"2002ko txostena" eta "2003ko jarduera programa", etxeko tratu txarrei eta sexu erasoei buruzkoak

Emakundek, Eusko Jaurlaritzako sailen, foru aldundien eta hiru hiriburuetako udalen laguntzarekin, *memoria* bat egin du, erakunde horiek 2002. urtean zehar etxeko tratu txarra eta sexu erasoak prebenitzeko eta desagerrarazteko burutu dituzten esku-hartzeak biltzeko. Gainera, lehengo urtean egin zuen bezala, *"2003. urterako jarduera programa, etxeko tratu txarrei eta sexu erasoei buruzkoa"* programa egin du, erakunde horiekin elkarlanean. 2003. urtean zehar, aipatutako erakunde horiek hainbat jarduera burutu behar dituzte, *III PAPME-EGPP* planean aurreikusitakoa aplikatu eta garatzeko; eta dokumentu horretan jarduera horiek guztiak nahi izan dira. *Planaren* alor horretako aurreikuspenei jarraituz, dokumentua esku-hartzeko 6 esparru hauetan banatu da:

- Giza eskubideen alorreko beharrezko tresna juridikoen aplikazioa indartzea, emakumeen aurkako indarkeria mota guztiei aurre egiteko eta horiek desagerrarazteko.
- Etxeko tratu txarrei eta sexu erasoei buruzko ikerketa sustatzea.
- Sentsibilizazioa eta prebentzioa.
- Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak daudenean esku hartzen duten profesionalak eta kolektiboak trebatzea.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzako arreta hobetzea.
- Etxeko indarkeriaren eta sexu erasoen biktima diren emakumeentzako eta adin txikikoentzako arreta zerbitzuak eta harrera baliabideak egokitzea.

Euskadiko botere publikoek etxeko tratu txarrei eta sexu erasoei buruz egin dituzten eta egin asmo dituzten jardueren ikuspegi orokorra izan nahi duen edozein pertsona, erakunde edo talderen zerbitzura dauden tresnak dira txostena eta jarduera *programa.*

## "Programa Nahiko", Programa Piloto para la Prevención del Maltrato Doméstico en el Marco Escolar

El *"Programa Nahiko"* tiene como objetivo la prevención de la violencia contra las mujeres y se desarrolla en el Sistema Educativo. Este *Programa* representa la continuación del trabajo desarrollado en los últimos años por el Instituto, tanto en la integración de la coeducación, como en el abordaje de la prevención del maltrato doméstico desde la adolescencia.








Nahiko es un programa escolar piloto para la prevención del maltrato, basado en la experimentación, investigación y acción conjunta con el profesorado de los centros que en él participan. El *Programa,* que se desarrolla a lo largo de dos cursos (2003-05), se centra en el tercer ciclo de Educación Primaria, en el intervalo de edad 10-12 años.

Esta experiencia piloto, en la que participan 3 centros escolares de la C.A. de Euskadi, se estructura en torno a cuatro ejes:

- Formación del profesorado.
- Elaboración de materiales.
- Sensibilización del alumnado.
- Sensibilización de la familia.

A lo largo de 2003 se han realizado las siguientes actuaciones:

- **Formación del profesorado**

  Durante el primer trimestre escolar se han realizado tres seminarios de formación en los que se han ido definiendo, consensuando y valorando las intervenciones en el marco del *Programa.* En los mismos han participado personas expertas con el fin de ampliar los conocimientos y enriquecer la reflexión del grupo en torno a la relación del género con la violencia contra las mujeres, el papel de la escuela en la acción preventiva, la construcción de la propia identidad y los valores de género en que se sustenta, la relación entre violencia y masculinidad, etc.

- **Elaboración de materiales**

  Se ha elaborado la primera unidad didáctica de las 6 unidades que conformarán el conjunto de materiales dirigidos al 3º ciclo de Educación Primaria.










**"Nahiko programa", Eskola esparruan etxeko tratu txarrei aurre egiteko programa pilotua**

"Nahiko programa"ren helburua emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzea da, eta hezkuntza sisteman garatzen da. Azken urte hauetan, erakundeak lanean jardun du, batetik, koedukazioa integratzeko, eta, bestetik, etxeko tratu txarren prebentzioari nerabezarotik heltzeko; *programa* honen bitartez, hain zuzen, lan horri jarraipena eman nahi zaio.

Nahiko tratu txarrei aurrea hartzeko eskola programa pilotua da, eta hartan parte hartzen duten zentroetako irakasleekiko baterako esperimentazioan, ikerketan eta ekintzan oinarritzen da. *Programa* bi ikasturtetan zehar garatzen da (2003-05), eta lehen hezkuntzako hirugarren zikloan kokatzen da, 10-12 urte bitarteko adin tartean.

Esperientzia pilotu honetan, Euskal AEko 3 ikastetxek hartzen dute parte; programa lau ardatz hauen inguruan egituratzen da:

- Irakasleen prestakuntza.
- Materialak lantzea.
- Ikasleen sentsibilizazioa.
- Familiaren sentsibilizazioa.

2003. urtean zehar, honako jarduera hauek burutu dira:

- **Irakasleen prestakuntza**

  Lehen eskola hiruhilekoan zehar, hiru prestakuntza mintegi burutu dira, eta horietan esku-hartzeak zehazten, adosten eta balioesten joan dira, programaren esparruan. Mintegi horietan, zenbait adituk hartu dute parte, taldearen ezagutzak zabaltzeko eta hausnarketa aberasteko, honako gai hauen inguruan: generoaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arteko lotura; eskolak prebentzio ekintzan duen funtzioa; norberaren nortasuna eraikitzea bai eta horrek oinarri dituen genero baloreak ere; indarkeriaren eta maskulinotasunaren arteko lotura eta abar.

- **Materialak lantzea**

  6 unitate didaktikok osatuko dute lehen hezkuntzako 3. ziklorako materiala; honezkero, lehen unitatea egin da.







*"Nor naiz ni?"*, es su título y aborda aspectos relacionados con la autoestima y la propia identidad, pilares fundamentales en los que sustenta una relación igualitaria. Consta de los siguientes elementos:

– 2 cuadernos de trabajo para el alumnado.

– 3 cuadernos con orientaciones para el profesorado.

– 1 cuaderno de trabajo para las familias.

– 3 juegos: *"Palabra a palabra"*, *"¿Quién es quién?"*, *"Juego de las etiquetas".*

– CD recopilatorio *"Beti aurrera".*

- **Sensibilización del alumnado**

Se ha realizado, en cada uno de los centros, una sesión de sensibilización, dirigida a todo el alumnado participante en el *Programa,* en la que se han analizado los aspectos trabajados a lo largo de la primera unidad didáctica. Estas sesiones cuyo objetivo ha sido reforzar la labor del profesorado en las aulas han contado con el soporte de una representación teatral en clave de humor.

- **Sensibilización de las familias**

Se ha realizado, también en cada uno de los centros, una sesión dirigida a las familias del alumnado participante en el programa. En ellas se presentó el *Programa* y se plantearon elementos de reflexión, apoyados por breves representaciones teatrales, sobre el problema de la violencia contra las mujeres.

## Iniciativa "Género y Presupuestos en el Gobierno Vasco"

Esta iniciativa *"Género y Presupuestos en el Gobierno Vasco"*, se desarrolla en el marco del área *Construcción de la capacidad normativa y ejecutiva para el desarrollo de políticas sensibles al género desde los poderes públicos de Euskadi del III P.A.P.M.E.* y su objetivo principal es la formación tanto teórica como práctica en el manejo de *Presupuestos* desde la perspectiva de género. Se han llevado a cabo, en años anteriores las siguientes fases: Elaboración de un documento de consulta elaborado a partir de trabajos y publicaciones de autoras que están actualmente investigando y




*"Nor naiz ni?"* da lehen unitate horren izenburua, eta berdintasunezko harreman baten funtsezko zutabeak diren autoestimuarekin eta norberaren nortasunarekin zerikusia duten alderdiak lantzen ditu. Honako material hauek ditu:

– Ikasleentzako 2 lan koaderno.

– Irakasleentzako argibideak biltzen dituzten 3 koaderno.

– Familientzako lan koaderno bat.

– 3 joko: "Hitzez hitz", "Nor da nor?", "Etiketen jokoa"

– *"Beti aurrera"* bilduma CDa.

- **Ikasleen sentsibilizazioa**

Hiru ikastetxetan, *programan* parte hartzen duten ikasle guztientzako sentsibilizazio saio bat egin da, eta, hartan, lehen unitate didaktikoan landutako alderdiak aztertu dira. Saio horien helburua irakasleek geletan egin beharreko lana indartzea izan da; euskarri gisa, umorezko antzezpen bat eman da.

- **Familien sentsibilizazioa**

Hiru ikastetxeetan ere, programan parte hartzen duten ikasleen familientzako saio bat egin da. Saio horietan *programa* aurkeztu zen, eta emakumeen aurkako indarkeriaren arazoari buruz hausnartzeko elementuak proposatu ziren, antzezpen laburren laguntzarekin.




## "Generoa eta Aurrekontuak Eusko Jaurlaritzan" ekimena

*"Generoa eta aurrekontuak Eusko Jaurlaritzan"* ekimen hau III. PAPMEren "Arauzko eta exekuzioko ahalmena eraikitzea, Euskadiko botere publikoetatik genero politikak garatzeko" alorraren esparruan garatzen da, eta bere helburu nagusia aurrekontuen erabileran prestakuntza teorikoa eta praktikoa eskaintzea da, genero ikuspegitik abiatuta. Aurreko urteetan, honako fase hauek burutu dira: kontsultarako dokumentu bat egitea, une honetan gai horri buruz ikertzen eta gai horretan lanean diharduten emakumezko egileen lan eta argitalpenetatik abiatuta; aurkezpen eta

trabajando sobre este tema; Seminario de presentación y sensibilización dirigido a la Comisión Interdepartamental del Gobierno Vasco y a las y los Viceconsejeros responsables de las Áreas de Presupuestos; Experiencia centrada en el análisis de determinadas partidas presupuestarias, llevada a cabo por el grupo de trabajo/formación, constituido a este efecto y compuesto por personal técnico de los Departamentos que habían incluido su compromiso de participar en la iniciativa en el *Documento-Programa 2001.* Estas fases concluyeron con la celebración de una jornada en la se presentaron experiencias llevadas a cabo en otros países, así como los resultados del análisis de los diversos programas tratados en el seno del grupo de trabajo y la elaboración de un *Manual* o guía para el análisis de los Presupuestos Públicos desde la perspectiva de género







Paralelamente al funcionamiento del grupo de trabajo, Emakunde mantuvo diversas reuniones con el Departamento de Hacienda y Administración Pública que dieron como resultado la revisión de los documentos presupuestarios para el año 2003 y la incorporación en los mismos de referencias a objetivos y programas de igualdad que ya se estaban desarrollando en diversos Departamentos. Esta acción se desarrolló, también, como estrategia de sensibilización sobre la importancia de incorporar una perspectiva de género al proceso presupuestario.

Durante este año 2003, Emakunde ha trasladado propuestas y mantenido contactos con el Departamento de Hacienda y Función Pública con el fin de dar continuidad y consolidar el trabajo iniciado con objeto de avanzar en el análisis de los presupuestos desde la perspectiva de género y contribuir a la consolidación de la cultura del mainstreaming en el Gobierno Vasco. Las propuestas realizadas están orientadas a definir las líneas y metodología de trabajo en dos ejes de actuación: **Análisis del Ingreso, Recaudación** e **Identificación y Análisis del Gasto,** previa definición de las categorías pertinentes.

Otras propuestas complementarias están orientadas al **Análisis de Impacto de Género** a partir de un programa o programas seleccionados en función de sus características

sentsibilizazio mintegia, Eusko Jaurlaritzako sailarteko batzordearentzat eta aurrekontuen alorren ardura duten sailburuordeentzat; zenbait aurrekontu sailen analisian oinarritutako esperientzia, horretarako eratutako prestakuntza/lan taldeak burutua *(2001eko programa-dokumentuan*, zenbait sailek ekimen horretan parte hartzeko konpromisoa hartu zuten, eta sail horietako teknikariek osatzen dute lan/prestakuntza talde hori). Fase horiek amaitzeko, jardunaldi bat antolatu zen; hartan, honakoak aurkeztu ziren: beste herrialde batzuetan burututako esperientziak; lan taldearen barruan landutako programen analisiaren emaitzak; eta aurrekontu publikoak genero ikuspegitik aztertzeko egindako gidaliburua.

Lan taldearen funtzionamenduarekin batera, Emakundek zenbait bilera egin zituen Ogasun eta Herri Administrazio Sailarekin. Bilera horien ondorioz, 2003. urterako aurrekontu dokumentuak aztertu ziren; gainera, dokumentu horietan, horrezkero zenbait sailetan garatzen ari ziren helburuei eta berdintasun programei buruzko aipamenak sartu ziren. Ekintza hori, halaber, estrategia gisa erabili zen, genero ikuspegia aurrekontu prozesura ekartzeak duen garrantziari buruz sentsibilizatzeko.




2003. urtean zehar, Emakunde harremanetan egon da Ogasun eta Herri Administrazio Sailarekin, eta sail horri proposamenak egin dizkio, hasitako lanari jarraipena emateko eta lan hori sendotzeko. Hala, aurrerapenak egingo dira, aurrekontuak genero ikuspegitik aztertzeari dagokionez; eta, gainera, mainstreamingaren kultura Eusko Jaurlaritzan ezar dadin sustatuko da. Egindako proposamenak orientatu dira lanerako lanerako ildoak eta metodologia zehaztera, bi jarduera ardatz hauetan: **diru sarreraren, diru bilketaren analisia** eta **gastuaren identifikazioa eta analisia**; aldez aurretik, beharrezko kategoriak zehaztuko dira.




Beste proposamen osagarri batzuk **genero inpaktuko analisira** orientatu dira, programa batetik edo batzuetatik abiatuta; programa horiek hautatzeko bi irizpide izan dira:



y su grado de relación con los objetivos de la igualdad y la continuación y ampliación del trabajo iniciado en la experiencia ya llevada a cabo.

Por otra parte el Departamento de Hacienda y Administración Pública, a propuesta de Emakunde, ha incorporado recomendaciones relativas a la inclusión de indicadores pertinentes para el análisis del impacto de género de los *Planes* y *Programas* en el documento de *Normas Técnicas para la Elaboración del Presupuesto 2004.*

## Instituto Vasco de Administración Pública/IVAP

La colaboración con el IVAP, en relación con la formación, se ha centrado básicamente en las siguientes acciones:

- Diseño del curso *"Maltrato Doméstico y Agresiones Sexuales"*, dirigido al personal de Servicios Sociales de Diputaciones y Ayuntamientos en el marco del *"Acuerdo Interinstitucional para la Mejora de la Atención a Mujeres Víctimas de Maltrato Doméstico y Agresiones Sexuales".*
- Diseño de un programa básico de formación dirigido a las personas contratadas por los Ayuntamientos como Agentes de Igualdad de Oportunidades, en el marco del *"Convenio I.N.E.M.-Corporaciones Locales".*
- Asesoramiento para el diseño del curso *"Igualdad de Oportunidades y Perspectiva de Género en Programas de Intervención Social"*, dirigido al personal de la Viceconsejería de Asuntos Sociales del Gobierno Vasco.
- Asesoramiento para el diseño de un curso de *Formación sobre Lenguaje y Enfoque de Género*, dirigido al personal de la Secretaría de Régimen Jurídico en el Departamento de Vicepresidencia del Gobierno Vasco.

Las actividades de formación organizadas por Emakunde durante el año 2003, dirigidas al personal de la propia Administración, han sido homologadas por parte del IVAP.

### Participación en Comisiones y Consejos

Emakunde participa en diversas Comisiones y Consejos adscritos a diferentes departamentos del Gobierno Vasco a través de los que desarrolla, también, su función de promoción e impulso de la incorporación del enfoque de gé-

batetik, beren ezaugarriak, eta, bestetik, berdintasunaren helburuarekin eta dagoeneko burutu den esperientzian hasitako lana jarraitzeko eta zabaltzeko helburuarekin lotuta dagoen ala ez.

Bestetik, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak, Emakunderen eskaerari erantzunez, *2004ko aurrekontua egiteko arau teknikoen* dokumentuan, *plan* eta *programen* genero inpaktua aztertzeko beharrezko adierazleak txertatzeari buruzkoak.

### Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea/ HAEE

Emakundek HAEErekin kolaboratzen du; prestakuntzaren alorrean, honako ekintza hauek sustatu ditu, bereziki:

– *"Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak"* ikastaroa diseinatzea, aldundi eta udaletako gizarte zerbitzuetako langileentzat, *"Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktima diren emakumeentzako arreta hobetzeko erakunde arteko akordioa"* egitasmoaren esparruan.

– Oinarrizko prestakuntza programa bat diseinatzea, udalek aukera berdintasunerako agente gisa kontratatutako pertsonentzat, *"INEM-Tokiko korporazioak hitzarmena"* egitasmoaren esparruan.

– *"Aukera berdintasuna eta genero ikuspegia gizarte esku-hartzeko programetan"* ikastaroa diseinatzeko aholku ematea; ikastaro hori Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietarako Sailburuordetzako langileentzat egin da.

– *Genero hizkerari eta ikuspegiari buruzko prestakuntza* ikastaro bat diseinatzeko aholku ematea; ikastaro hori Eusko Jaurlaritzako Lehendakariordetzako Erregimen Juridikoko Idazkaritzako langileentzat egin da.

Emakundek 2003. urtean Administrazioko bertako langileentzat antolatutako prestakuntza jarduerak homologatu egin ditu IVAPek.

### Parte-hartzea batzorde eta kontseiluetan

Emakundek Eusko Jaurlaritzako zenbait sailetako batzorde eta kontseiluetan parte hartzen du; horien bitartez, bere eginkizun nagusietako bat ere garatzen du, alegia, aipatutako organo horien eskuduntza diren gaietan ikuspegi ge-

nero en las cuestiones competencia de los citados órganos. Son los siguientes:

- Comisión Interinstitucional del Plan de Salud.
- Comisión Interdepartamental para la Inserción.
- Consejo Vasco de Bienestar Social.
- Consejo Asesor de Drogodependencias.
- Comisión Interdepartamental de Publicidad.
- Consejo para la Promoción Integral y Participación Social del Pueblo Gitano en el País Vasco.

Por otra parte, en el marco de los **Fondos Estructurales Europeos,** Emakunde es miembro de los siguientes comités y grupos de trabajo:

### Comités de seguimiento del Docup Feder y del Programa Operativo del F.S.E. (Objetivo 3) para el País Vasco 2000-2006

Emakunde es miembro permanente de los Comités de Seguimiento Regionales tanto del *"D.O.C.U.P. (F.E.D.E.R.)"* como del *"Programa Operativo del F.S.E. (Objetivo 3)"*, para el periodo 2000-2006. Esta participación es uno de los mecanismos que se establecen en las disposiciones generales sobre los *Fondos Estructurales* para contribuir a *"eliminar desigualdades y a promover la igualdad entre hombres y mujeres".*

Cada uno de estos Comités ha mantenido varias reuniones a lo largo de este año con el fin de aprobar los *Informes de Ejecución* de la anualidad 2002 y revisar las adaptaciones propuestas tanto en el *D.O.C.U.P.* como en el *Programa Operativo de Objetivo 3 del F.S.E.* en nuestra Comunidad Autónoma, así como para aprobar los *Informes de Evaluación Intermedia.*

### Grupo de Trabajo Temático de Igualdad de Oportunidades

Además, Emakunde junto con la Dirección de Economía y Planificación y la Dirección de Empleo y Formación del Gobierno Vasco, ha participado en el Grupo de Trabajo Temático de Igualdad de Oportunidades, surgido a requerimiento de los Comités de Seguimiento de los Marcos Comunitarios de Apoyo para las Regiones Españolas de Ob-

Gráfico 8. **Composición de la Comisión Interdepartamental de Publicidad**




La Comisión Interdepartamental de Publicidad esta compuesta por las siguientes personas miembros:

- **Presidencia:** La persona titular de la Secretaría General de Comunicación de la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza.
- **Vocales:** Una persona en representación de la Vicepresidencia del Gobierno, y de cada uno de los demás Departamentos del Gobierno Vasco. Cada vocal tiene designada una persona suplente.
- **Secretaría Técnica:** Corresponde una persona técnica de la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza, con voz pero sin voto, designada por quien ostenta la Presidencia de la Comisión.
- **Asesoría:** Una persona de Emakunde, especialista en temas relacionados con el fomento, en los medios de comunicación social, de una imagen de las mujeres no discriminatoria, a fin de eludir estereotipos sexistas y favorecer la sensibilización de la población vasca con respecto a la necesaria igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres.

8. grafikoa. **Publizitateko Sail arteko Batzordearen osaketa**

1. *Lehendakaritza*
   Presidencia
2. *Idazkaritza Teknikoa*
   Secretaría Técnica
3. *Emakunderen aholkularitza*
   Asesoría de Emakunde
4. *Batzordekideak*
   Vocales

Publizitatearen Sail arteko Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

- **Lehendakaritza:** Jaurlaritzaren Lehendakaritzako Komunikaziorako idazkari nagusia.
- **Batzordekideak:** Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako ordezkari bat, eta Eusko Jaurlaritzako gainerako sailetatik ordezkari bana. Batzordekide bakoitzak ordezko bat du.
- **Idazkaritza Teknikoa:** Hitza bai baina botorik ez duen Jaurlaritzaren Lehendakaritzako teknikari bati dagokio. Batzordeburuak izendatuko du.
- **Aholkularitza:** Emakundeko norbait, hedabideetan baztertzailea ez den emakumeen irudia bultzatzeko gaietan espezialista dena. Horrela, estereotipo sexistak baztertu nahi dira, bai eta gizonen eta emakumeen arteko beharrezko berdintasunari buruz Euskal Herriko gizartea sentikortu ere.

neroa txertatu dadin sustatzea eta bultzatzea. Hona batzorde eta kontseilu horien izenak:

- Osasun Planaren Erakunde arteko Batzordea.
- Gizarteratzeko Sailarteko Batzordea.
- Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilua.
- Droga Mendekotasunen Aholku Batzordea.
- Publizitateari buruzko Sailarteko Batzordea.
- Euskal Herriko Ijitoen Sustapen Integralerako eta Gizarte Parte-hartzerako Kontseilua.

Bestalde, **Europar Egitura Funtsen** esparruan, Emakume honako batzorde eta lan talde hauetako kide da:

## Euskal Herrirako Feder Programatzeko Dokumentu Bakarraren eta EGIFen programa operatiboaren (3. helburua) segimendu batzordeak. 2000-2006

Emakunde *"Programatzeko Dokumentu Bakarraren (FEDER)"*en eta *"EGIFen programa operatiboa (3. helburua)"* programaren 2000-2006 aldirako eskualdeko segimendu batzordeetako kide iraunkorra da. Egitura funtsei buruzko xedapen orokorretan, zenbait mekanismo ezartzen dira, "*desberdintasunak desagerrarazten eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen*" laguntzeko; eta batzorde horietan parte-hartzea mekanismo horietako bat da.

Urtean zehar, batzorde horiek guztiek zenbait bilera egin dituzte, batetik, 2002. urteko *exekuzio txostenak* onartzeko, eta, bestetik, gure autonomia erkidegoko *Programatzeko Dokumentu Bakarraren* eta *Europako Gizarte Funtseko 3. helburuko programa operatiboan* proposatutako egokitzapenak aztertzeko. Horiek ez ezik, *tarteko ebaluazio txostenak* ere onartu dira.

## Aukera berdintasunaren gaia lantzeko taldea

1. helburuko eta 3. helburuko espainiar eskualdeetarako komunitate esparruen segimendu batzordeen eta "*2. helburua koordinatzeko nazio egitura*" izenekoaren eskaerei erantzunez, aukera berdintasunaren gaia lantzeko taldea sortu da, 2000-2006 programazio aldirako; Emakundek talde horretan parte hartu du, Eusko Jaurlaritzako Ekono-

jetivo nº.1 y del Objetivo nº.3, así como a requerimiento de la *"Estructura Nacional de Coordinación del Objetivo nº.2"*, durante el periodo de programación 2000-2006. En este grupo temático se ha revisado la evaluación intermedia para identificar si se había dado respuesta a las orientaciones metodológicas para la incorporación del *Principio de Igualdad de Oportunidades entre Hombres y Mujeres* en las intervenciones de los *Fondos Estructurales.* Así mismo, para dar apoyo a este Grupo se ha creado una Comisión de Trabajo compuesta por los Organismos de Igualdad de las distintas Comunidades Autónomas en el que participa Emakunde.

## Comité de Dirección del Programa Regional de Acciones Innovadoras del País Vasco. 2002-2003

Emakunde forma parte del Comité de Dirección *del "Programa Regional de Acciones Innovadoras/P.R.A.I.".* Este Comité se ha reunido en dos ocasiones a lo largo del año 2003 para analizar la evolución del *Programa* y el nivel de cumplimiento de los compromisos financieros y de ejecución de las acciones, así como para analizar la presentación de otro *Programa* para el año 2005 en el que se incorpore la perspectiva de género desde la planificación.

## Comité de seguimiento del Plan de Desarrollo Rural Sostenible de la Comunidad Autónoma del País Vasco

Como integrante de este Comité, Emakunde participa en las reuniones anuales en las que se presenta para su aprobación el *"Informe Anual de Ejecución"* del ejercicio anterior y las nuevas propuestas a desarrollar en el marco del *"Plan de Desarrollo Rural Sostenible/P.D.R.S.".* En la reunión de este año se abordaron, además de los habituales, diversos asuntos relacionados con la evaluación intermedia del *P.D.R.S.* Además, Emakunde participa como miembro permanente en el Grupo de Evaluación del *P.D.R.S.*

Emakunde ha participado, asimismo, en la Comisión Gestora del F.O.C.A.D., incorporando cuestiones relacionadas con la igualdad de oportunidades durante la evaluación de los proyectos presentados a la convocatoria del *Fondo de Cooperación y Ayuda al Desarrollo* atendiendo al criterio de

mia eta Plangintza Zuzendaritzarekin eta Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzarekin batera. Talde horrek bitarteko ebaluazioa aztertu du, *egitura funtsen* esku-hartzeetan *gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren* printzipioa txertatzeko orientazio metodologikoei erantzuna eman zaien aztertzeko. Orobat, talde horri laguntzeko lan batzorde bat sortu da, Emakundek parte hartzen duen autonomia erkidegoetako berdintasun erakundeek osatua.

## Euskadiko ekintza berritzaileen eskualde programaren zuzendaritza batzordea. 2002-2003

Emakundek *"Ekintza berritzaileen eskualde programa/PRAI"* programaren zuzendaritza batzordean parte hartzen du. 2003. urtean, batzorde hori bi aldiz bildu da, batetik, *programaren* ebaluazioa eta ekintzen finantza eta exekuzio konpromisoak zenbateraino bete diren aztertzeko, eta, bestetik, 2005. urterako beste *programa* baten aurkezpena aztertzeko; azken programa horretan, genero ikuspegia txertatuko da, plangintzaren unetik.

## Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapen jasangarriko planaren segimendu batzordea

Batzorde horretako kide den aldetik, Emakundek urteko bileretan parte hartzen du. Bilera horietan, aurreko ekitaldiko "*urteko exekuzio txostena*" aurkezten da, onartua izateko; bai eta *"Landa garapen jasangarriko plana"*ren esparruan garatu beharreko proposamen berriak ere. Aurtengo bileran, ohiko gaiak ez ezik, *LGP* planaren bitarteko ebaluazioarekin zerikusia duten zenbait gai ere aztertu ziren. Gainera, Emakunde *LGP* planaren ebaluazio taldeko kide iraunkorra da.

Gainera, GLSFren batzorde kudeatzailean ere parte hartu du; hala, *garapenerako lankidetza eta laguntza funtsaren* deialdian aurkeztutako proiektuen ebaluazioan zehar, aukera berdintasunarekin zerikusia duten gaiak aztertu dira, *GLSF dekretuak* ezarritako emakume eta gizonen arteko

igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres establecido por el propio *Decreto F.O.C.A.D.*

## Comisión Gestora del Fondo de Cooperación y Ayuda al Desarrollo/F.O.C.A.D. y Consejo Asesor de Cooperación al Desarrollo

El Instituto Vasco de la Mujer/Emakunde ha colaborado con la Dirección de Cooperación al Desarrollo del Gobierno Vasco, asesorando en la incorporación del enfoque de género, en el proceso de elaboración del *Anteproyecto de Ley de Cooperación al Desarrollo.*

Emakunde ha promovido, también, la inclusión de criterios de género en los *Convenios* suscritos entre la Dirección de Cooperación y otras organizaciones y ha firmado un *Convenio de Colaboración*, junto al Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco, la Asociación de Entidades Vascas Cooperantes/Euskal Fondoa y la Asociación de Municipios Vascos/Eudel con objeto de definir, aprobar y desarrollar el Programa *"Coordinación de la Cooperación Municipal Vasca con la República Árabe Saharaui Democrática/R.A.S.D."*

### Ámbito Territorial y Local

La coordinación, en la ejecución de políticas a favor de la igualdad de oportunidades de mujeres y hombres, tiene como objetivos optimizar y racionalizar los recursos existentes a fin de mejorar la prestación de los servicios públicos y de lograr una mayor integración social de las mujeres.

## Diputaciones Forales

Se han mantenido reuniones periódicas para el intercambio y el diseño de posibles actuaciones, con los y las profesionales con quienes ya existe interlocución y están implicadas en el desarrollo de políticas de igualdad de oportunidades en el ámbito Foral o Local.

Asimismo, con el fin de optimizar esfuerzos en el mismo ámbito de actuación, se ha mantenido la colaboración y el intercambio de información con la Diputación Foral de Biz-

aukera berdintasunaren irizpideari jarraituz.

## Garapenerako lankidetza eta laguntza kudeatzeko batzordea/GLSF eta garapen lankidetzarako aholku batzordea

Emakumearen Euskal Erakundeak/Emakundek Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetza Zuzendaritzari lagundu dio, *garapenerako lankidetzari buruzko lege aurreproiektua* lantzeko prozesuan, genero ikuspegia txertatzeari buruz aholku emanez.

Orobat, Emakundek lankidetza zuzendaritzaren eta beste erakunde batzuen artean izenpetutako *hitzarmenetan* genero irizpideak txertatzea sustatu du. Gainera, *lankidetza hitzarmen* bat izenpetu du, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailarekin, Euskal Boluntarioen Erakundeen Elkartea /Euskal Fondoa-rekin eta Euskal Udalen Elkartea /Eudel-ekin, "Euskal udalen eta *Saharako Arabiar Errepublika Demokratikoa/RASDen arteko lankidetzaren koordinazioa*" programa zehazteko, onartzeko eta garatzeko.

### Lurraldeko eta tokiko esparrua

Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunaren aldeko politiken aplikazioa koordinatuz, eskuragarri dauden baliabideak optimizatu eta arrazionalizatu nahi dira, zerbitzu publikoen prestazioa hobetzeko eta emakumeen gizarteratze maila handitzea lortzeko.

## Foru Aldundiak

Foruko edo tokiko esparruetako hainbat profesional inplikatuta daude aukera berdintasunerako politikak garatzeko ahaleginean; Emakunde lehendik ere harremanetan zegoen horietako batzuekin, eta aurten zenbait bilera egin ditu, balizko jarduerak elkartrukatzeko eta diseinatzeko.

Orobat, jarduera eremu berean ahaleginak optimizatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiarekiko lankidetzari eta informazio elkartrukatzeari eutsi zaie, udalentzako eta emakume

kaia en lo que se refiere a las subvenciones a Ayuntamientos y a asociaciones de mujeres.

Por otra parte, se han seguido manteniendo relaciones bilaterales con diferentes Departamentos de las Diputaciones Forales que, por el tipo de actividades concretas que desarrollan, requieren del apoyo de Emakunde. En este sentido, ha destacado la colaboración realizada con el Departamento de Economía y Turismo de la Diputación Foral de Gipuzkoa en la evaluación de los programas *"EMAWEB-Mujeres en la Red"* y *"EMAWEB +"*, dirigidos al colectivo de mujeres agrupado bajo el epígrafe *"inactivas"* en la terminología utilizada por la O.I.T.

## Comisión Inter-institucional

En el marco de la Comisión Interinstitucional se ha llevado a cabo la coordinación entre los Departamentos responsables de las políticas de igualdad de las tres Diputaciones Forales y los Servicios de Igualdad de los Ayuntamientos de las tres capitales, en representación de Eudel, al objeto de facilitar la cooperación interinstitucional con relación a los programas y actividades que se están llevando a cabo.

## Ayuntamientos

Se ha mantenido relación, de modo bilateral, con los Ayuntamientos y Mancomunidades, ya que dadas las diferentes características y necesidades que presentan los Municipios se hace necesario un asesoramiento individualizado.

En este sentido, se ha continuado con el trabajo de asesoramiento para la elaboración de *Planes Municipales de Acción Positiva*. Dada la creciente demanda por parte de los Ayuntamientos, aparte de la asesoría que se presta directamente desde Emakunde, se ha mantenido la contratación de un Servicio de Asesoramiento para aquellos Ayuntamientos que lo solicitan con el compromiso de diseñar un Plan o Programa operativo en desarrollo del *III P.A.P.M.E-E.G.P.P.*

Durante este año, en desarrollo del *"III Plan de Acción Positiva para las Mujeres en la C.A. de Euskadi. Enfoque de Género en las Políticas Públicas"*, han aprobado su *Plan Municipal de Acción Positiva* los Municipios de: Abanto y Zierbana, Azkoitia, Hernani, Zegama y Zarautz. Cotando

Gráfico 9. **Composición de la Comisión Interinstitucional**




Desde este marco de colaboración Emakunde asesora, coordina y apoya las políticas forales de igualdad de oportunidades.

Asimismo, se mantienen reuniones periódicas de intercambio y cooperación con los y las profesionales con quienes ya existe interlocución e implicadas en el desarrollo de políticas de igualdad de oportunidades en el ámbito foral o local, sobre formas de poner en marcha planes integrales de acción positiva, siendo uno de los temas tratados el de la formación en igualdad de oportunidades del personal técnico de Ayuntamientos y Diputaciones y las posibilidades de abordarlo desde el establecimiento de acciones de formación de modo conjunto.

9. grafikoa. **Lurralde arteko Batzordearen osaketa**

1. *Emakunde*
   Emakunde
2. Representando a Eudel, las Concejalías competentes en temas de igualdad de las tres capitales de nuestra Comunidad
3. Áreas responsables de las políticas de igualdad en las Diputaciones Forales

*Lan Taldeak eta Elkarrizketa Teknikoak*

Grupos de Trabajo e Interlocuciones Técnicas

Lankidetza esparru horretatik, Emakundek aukera berdintasuneko foru politikei aholkua, koordinazioa, eta laguntza eskaintzen dizkie.

Era berean, ideiak eta esperientziak trukatzeko eta kooperatzeko bilerak egin dira, aldian-aldian, profesionalekin. Profesional horiekin jadanik bazegoen harremanik, eta aukera berdintasunaren aldeko politikak aurrera eramaten dihardute, foru edo toki esparruan. Bilera horietan, ekintza positiborako plan integralak abiarazteko moduak aztertu dira. Eta, besteak beste, gai hau landu da: udaletako eta aldundietako teknikariak aukera berdintasunaren arloan prestatzea, elkarrekin prestakuntza ekintzak ezarriz.

elkarteentzako dirulaguntzei dagokienez.

Bestetik, Emakundek foru aldundietako zenbait saili laguntza ematen die, jarduera jakin batzuk garatzen dituztelako; aurten ere, sail horiekiko bi aldeko harremanei eutsi zaie. Zentzu horretan, nabarmentzekoa da Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia eta Turismo Sailari emandako laguntza, *"EMAWEB-emakumeak sarean"* eta *"EMAWEB+"* programen ebaluazioan; hain zuzen ere, programa horiek LANEren terminologiaren arabera *"ez-aktiboak"* diren emakumeen kolektiboa dute jomugan.

## Erakunde arteko batzordea

Erakunde arteko batzordearen esparruan, hiru foru aldundietan berdintasun politiken ardura duten sailen eta hiru hiriburuetako udaletako berdintasun zerbitzuen arteko koordinazioa egin da, burutzen ari diren programa eta jarduerei dagokienez erakunde arteko lankidetza errazteko (hiriburuetako udalak Eudelen izenean ageri dira).

## Udalak

Udal eta mankomunitateekiko bi aldeko harremanak izan dira; izan ere, udal bakoitzak berariazko ezaugarri eta beharrak ditu, eta horrek beharrezko egiten du banan-banako aholkularitza.

Zentzu horretan, *ekintza positiboko udal planak* lantzeko aholkularitza lanari jarraipena eman zaio. Udalen eskaera kopurua handituz doala ikusirik, Emakundetik zuzenean eskaintzen den aholkularitza ez ezik, aholkularitza zerbitzu bat ere kontratatu da, hura eskatu duten udalentzat; udal horiek, ordainean, plan edo programa operatibo bat diseinatzeko konpromisoa hartu dute, *III PAPME-EGPP* plana garatuz.

Aurten, Abanto-Zierbenako, Azkoitiko, Hernaniko, Zegamako eta Zarauzko udalek onartu dute *Ekintza positiboko udal plana, "Euskal AEko emakumeentzako ekintza positiboen III. plana". Genero ikuspegia politika publikoetan"* plana garatuz. Haiekin, 38 dira horrelako plan bat duten

con ellos son ya 38 los Ayuntamientos que cuentan con un *Plan* de estas características, abarcando así a un 70% de la población de nuestra Comunidad.

Con el fin de promover actividades y medidas en los Ayuntamientos que, habiendo aprobado su propio *Plan Municipal de Acción Positiva*, tengan por objetivo propiciar la igualdad de oportunidades de mujeres y hombres por medio de actividades relacionadas con la información, sensibilización y formación, Emakunde, a través de su *Programa de Subvenciones*, ha concedido ayudas a los Municipios de: Ermua, Bilbao, Ondarroa, Mungia, Arrasate, Vitoria-Gasteiz, Eibar, Berango, Berriz, Llodio, Zalla, Gernika-Lumo, Balmaseda, Muskiz, Ortuella, Irún y Hernani para el desarrollo de distintas acciones.

Emakunde ha impulsado la contratación de Agentes de Igualdad en el marco del "*Convenio I.N.E.M.-Corporaciones Locales*". A través de este *Convenio*, los Municipios de: Llodio, Abanto y Zierbena, Bermeo, Ortuella, Balmaseda, Portugalete, Arrasate, Irún y Rentería (Agencia de Desarrollo Oarsoaldea), han contado con el trabajo de estas profesionales.

Emakunde ha puesto en marcha un *Programa de Coordinación* de los Ayuntamientos en desarrollo de las políticas de igualdad de mujeres y hombres. Para ello ha contratado un equipo de personas expertas que ha coordinado y facilitado las reuniones de trabajo. Fruto de una convocatoria inicial han surgido tres grupos de trabajo en los que participan las personas técnicas responsables de las políticas de igualdad de los Ayuntamientos. Cada uno de estos grupos de trabajo se centra en el desarrollo de uno de los siguientes temas:

— Violencia doméstica contra las mujeres.

— Presupuestos locales con enfoque de género.

— Transversalidad de género.

Los objetivos de esta iniciativa son, por una parte promover tanto el intercambio de experiencias y propuestas de mejora de las actividades desarrolladas en sus ámbitos de actuación como el aprendizaje de nuevos instrumentos y estrategias de intervención y, por otra, experimentar un

udalak, eta gure erkidegoko herritarren %70 hartzen dute.

Udal batzuek, *Ekintza positiboen udal plana* onartuta, emakume eta gizonen artean aukera berdintasuna sustatzeko helburua dute, informazioarekin, sentsibilizazioarekin eta prestakuntzarekin zerikusia duten jardueren bitartez. Emakundek, udal horietan jarduerak eta neurriak sustatzeko, *Dirulaguntza programa* sortu du. Hala, Ermuko, Bilboko, Ondarroako, Mungiako, Arrasateko, Gasteizko, Eibarreko, Berangoko, Berrizko, Laudioko, Zallako, Gernika-Lumoko, Balmasedako, Muskizko, Urtuellako, Irungo eta Hernaniko udalek laguntzak jaso dituzte, hainbat ekintza garatzeko.

Emakundek berdintasun agenteen kontratazioa bultzatu du, "*INEM-Tokiko korporazioak hitzarmena*"ren esparruan. *Hitzarmen* horren bidez, emakumezko profesional horiek Laudioko, Abanto-Zierbenako, Bermeoko, Urtuellako, Balmasedako, Portugaleteko, Irungo eta Errenteriako (Oarsoaldea garapen agentzia) udaletan lan egin dute.

Emakundek udalak koordinatzeko programa bat jarri du abian, emakume eta gizonen arteko berdintasunerako politikak garatzeko. Horretarako, aditu talde bat kontratatu du, eta horrek lan bilerak koordinatu eta erraztu ditu. Lehen talde horretatik hiru lan talde sortu dira, eta horietan udaletan berdintasun politiken ardura duten teknikariek hartzen dute parte. Lan talde horiek gai hauetako bana garatzen dute:

- Emakumeen aurkako etxeko indarkeria.
- Genero ikuspegitik egindako tokiko aurrekontuak.
- Genero zeharkakotasuna.

Ekimen honek helburu hauek ditu: batetik, esku-hartzeko esparruetan garatutako jarduerak hobetzeko esperientziak eta proposamenak elkartrukatzea eta esku-hartzeko tresna eta estrategia berriak ikastea sustatzea; eta, bestetik, administrazioen arteko lankidetza eredu bat probatzea, emaku-

modelo de colaboración entre las administraciones y sus actuaciones en materia de igualdad de mujeres y hombres para su generalización posterior.

Emakunde ha colaborado, también, con los Ayuntamientos, participando en la elaboración de:

– *Programas de Empleo* para grupos concretos de mujeres, principalmente, en respuesta a las solicitudes recibidas de las y los Agentes de Igualdad contratadas en el marco del "*Convenio I.N.E.M.-Corporaciones Locales".*

– *Planes de Empleo Municipales o Comarcales* a fin de facilitar la incorporación de objetivos y actividades orientados a la Igualdad en su diseño.

– Temario para la selección de Agentes de Igualdad en el Ayuntamiento de Bilbao.

Emakunde ha continuado asesorando a los Ayuntamientos en el diseño y búsqueda de personas expertas para la realización de actividades de sensibilización y de formación en sus Municipios.

### El Marco Europeo

Emakunde ha realizado, con la colaboración de la Delegación de Euskadi en Bruselas, el seguimiento y la difusión de la normativa, de los *Planes* y *Programas*, encuentros, estudios, etc. sobre igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres promovida y/o organizada por las Instituciones Europeas. En este sentido, cabe destacar el seguimiento exhaustivo en dos áreas de trabajo:

## 1. Programas e Iniciativas Europeas

Se ha realizado tanto el seguimiento del *"V Programa de Acción Comunitario para la Igualdad entre Mujeres y Hombres"* como otros *Programas* e *Iniciativas* centradas en ámbitos específicos.

– EQUAL .......... Empleo
– DAPHNE .......... Violencia
– SOCRATES .......... Educación
– EDUARDO DA VINCI .......... Formación Profesional
– JUVENTUD CON EUROPA .......... Juventud

me eta gizonen arteko berdintasunerako jarduerei buruzkoa; ondoren, eredu hori hedatu nahi da.

Emakundek udalekin ere kolaboratu du, honakoak lantzeko parte hartuz:

– Emakume talde jakinetarako *enplegu programak*; bereziki, "*INEM-Tokiko korporazioak hitzarmena*" egitasmoaren esparruan kontratatutako berdintasun agenteek egindako eskaerak hartu dira aintzat.

– *Udaleko edo eskualdeko enplegu planak*, plan horiek diseinatzerakoan, berdintasunerako helburu eta jarduerak txertatzea errazteko.

– Bilboko Udalean berdintasun agenteak hautatzeko gaiak.

Emakundek udalei aholku ematen jarraitu du, dela planen diseinuan, dela udaletan sentsibilizazio eta prestakuntza jarduerak burutzeko adituak bilatzeari dagokienez.



**Europar esparrua**

Emakundek, Euskadik Bruselan duen delegazioarekin elkarlanean, europar erakundeek sustatutako eta/edo antolatutako emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko arauen, *plan* eta *programen*, topaketen, ikerlanen eta abarren segimendua eta hedapena egin du. Zentzu horretan, nabarmentzekoa da bi lan alor hauetan egindako segimendu zabala:

## 1. Europar programak eta ekimenak

"*Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako komunitatearen V. ekintza programa*"ren eta berariazko esparruetarako bestelako *programa* eta *ekimenen* segimendua egin da. Grafikoa:

– EQUAL .................. Enplegua
– DAPHNE .................. Indarkeria
– SOCRATES .................. Hezkuntza
